



KATEBEGIA

Politikaren eta literaturaren (h)egian



Hasiera » (A)iruzkin literarioak » *Argiak errepidean: abailak mudatu du mundua, bizkorra moteldu da*

IRA
29

0

Argiak errepidean: abailak mudatu du mundua, bizkorra moteldu da

Atalak: (A)iruzkin literarioak



Ramiroren forru polar zaharra.



"Elur bustia" Pello Lizarralderen seigarren nobela da.

Pello Lizarralde

Elur bustia

Erein, 2106

MIKEL ASURMENDI

1958an jaioa. Zumarragarra eta urretxuarra, nahiz batzuentzat ezinezko bitasuna izan. **ARGIAko kazetaria**. Politika esparrutik literatura eremura doan jendarteko gaiak jorratzen ditut normalean, Hendaia munduaren epizentroa izaki.

Jarraitu @masurmendi
@masurmendi(r)en Txioak

Bilatu:

Bilatu

KATFGORTAK

– **Bila ezak hor...** Forru polar zahar bat ekarri diat hiretzat. Eta eraman ezak, nik ez diat behar (96. orria).

Lontxorena da ahapaldi hori. Nobelako protagonista Ramirori errana. Lontxo bigarren pertsonaia da. Bigarren protagonista naski. Pertsonaiak bakan dira nobelan.

Alabaina, badira nor pertsona(ia) hauek. Nolakoak dira *Elur bustiako* pertsonaiak? Zuk bilatu irakurle. Ramiroren bidaide segitzen dut nik, iruzkingile; Lontxok Ramirori eskaini forru polarra jantzirik. Liburuko azalean zintzilik duzun janzkia bera. Neguaren zantzutan noa, goaz.

Aldian oinez aldian kamio-stopean dabil Ramiro. Txofer bati mintzo zaio protagonista oraingoan.
– Itxura batean badaude gu baino makurrago bizi direnak, eta hala dabiltzanek, badakizu... ia edozein gauza onartzen dute. Hartara, haiek gutxi eta guk bat ere (28. orria).

Ramiro urrundik heldu da. Bestela ere irudika dezakezu; bertatik bertara dabilen morroia. Bertakoa da, edo izan daiteke, baita etorkina izan ere. Nor ez da etorkin? Destino finkorik gabeko destino petrala duzu Ramirorena. *Etorkina* hala nola *joankina* dateke.

“Argizariaren gozoa aspaldi zegon etxearen muinoan ezarrita”. Ramirok, eskerrak, aurkitu du aterpe bat.

Haranez haran doa Ramiro, lan xerka. “Farola baso harrigarriak” topatzen ditu bidean. Kamioi gutxi topatzen du ordea, lan urria euren eremuan.

Lontxok itaundu du oraingoan Ramiro:

- Dena lana al da?
- Hik esanen didak... Nik, ordea, beste galdera bat diat: lanik gabe zer da? (83 orria.)

Udazken koloretan gaindi doa Ramiro. Familiarentzat hazkurria aurkituko duelako menturan. Eta ni harekin.

Orioko bardoak Orba haranari abestu kanta dantzut. Alta bada, une batez, hitz hauek jaso ditut Ramiroren belarrietatik:

- Harritu ere egiten naiz pixka bat. Sakelako horiek daudenetik hain jende gutxi etortzen da (103. orria).

- ▶ (A) iruzkin literarioak
- ▶ (B) literatura
- ▶ (C) politika
- ▶ (D) kulturgintza
- ▶ (E) gizartea
- ▶ (H) endaiak
- ▶ Antzerkia
- ▶ Artea
- ▶ Azpiegiturak
- ▶ Bertsolaritza
- ▶ Dantza
- ▶ Ekonomia
- ▶ Energia
- ▶ Erlijioa
- ▶ Euskara
- ▶ Hedabideak
- ▶ Hezkuntza
- ▶ Historia
- ▶ Hizkuntzak
- ▶ Jaiak
- ▶ Kirola
- ▶ Musika
- ▶ Natura
- ▶ Nazioartea
- ▶ Osasuna
- ▶ Politika saioak

Anartean, mundu bat. Mundu xumea xeheki narratua. Itxura gutxiko mundu bat. Itxuraz ia deus gertatzen ez den pasaldia.

Ba al dago mundualdi globalizatu hau izaterik, nork bere baitakoa, nork bizi duena, xume eta apal gertatzen zaiguna, xehe-xehe azaldu ezean?

Ramirok bideari nola Pello Lizarralde fier segitzen dio bere jiteari. Berezkoa daukan kontatzeko manerari, bere estiloari.

Mundu globala tokian tokiko galsoro, errepide eta aparkalekuetan dago. Hiri erraldoirik ezean, herriek eta auzoek kontakizun unibertsalak biltzen dituztelako menturan. Mundu txiki horiek entzuten jakin behar da, ordea. Horixe idazle honen dohaina.

Berriz ere, Elur bustia-n ere, abailan doan mundu honen begirada sosegatua eskaintzen digu Zumarragan jaiotako idazle nafarrak. Isiltasuna da nagusi Lizarralderen kontakizunean, bere pertsonaien mintzo pausatua.

Ramioren hitzak moteldu dira eta isiltasuna gailendu (nire baitan). *Elur bustiak* larrazkeneko koloreak marguldu ditu dagoeneko. Haur garaiko kontuak aditzen ditut isiltasunean, **Bidasoako (Berako) bardoaren** ahotsean:

Argiak errepidean (Petti/Pello Lizarralde)

Mantso etortzen zen gaua udan,
eta orduan elkartzen ginen haur guztiak,
han, errepide bazterrean.

Autoen argiek itsutzen gintuzten
gure ondotik pasatzean.

Laster hasten ginen solasean.

Haur batek istorio bera kontatzen zuen
dardara arina ahotsean:

“Kamioi luze bat ibiltzen da alderrai
(e)ta hemendik pasatzen da noiznahi”

“Zatoz, itzal hori.

- ▶ Sailkatugabeak
- ▶ Zientzia eta teknologia
- ▶ Zinema

AZKEN BIDALKETAK

- ▶ Argiak errepidean: abailak mudatu du mundua, bizkorra moteldu da
- ▶ Otondo: “Herriko elkarte eta enpresen artean errazagoa da proiektuak egitea, instituzioen artean baino”
- ▶ Baztango alkate Joseba Otondo: “Neoliberalismoak gure erakundeen higatzea ekarri du”.
- ▶ Herri (h)egietan gora, zu-han-d’or-eta-n, i-he-s-i-e-ta-n
- ▶ Hotzikarak: tanta leunak ortzantz artean

IRUZKIN BERRIAK

- ▶ **Bea Salaberr(e)k** Euskara afrontua izanen da Herri Elkargoan? bidalketan
- ▶ **Iruñerritarra naiz(e)k** Zitagarrria eta kitzikagarria: jendeok iratzartzen bagara, iratzarriko da Euskal Herria bidalketan

Geldi zaitez hemen.
Utzidazu hurbiltzen
eta barrenean begiratzen”

“Gelditzen bada, kasu eman.
Igotzera gonbidatzen zaitu iluntzean”
“Sartuz gero ziztuan urrunduko zara,
argia nola zeruan”

“Eta kamioian zaudelarik
ezkerrera behatu eta ohartzen zara,
inor ez dagoela bolante aurrean,
inor ez zure ondoan”

“Zaude, itzal hori.
Geldi zaitez hemen.
Utzi besarkatzen.
Hala hartuko duzu atsedean”

Bideko segida:

Ramiorekin nindoala Pello Lizarralderekin ere ibili naiz. Haren aitaren kamioiaren kabinan imajinatu ditut Pelloren, Ramiroren eta ene burua. Pelloren aitaren soa behatu dut, haren bolantearen mugimendu ñimiñoena, enbragearen eta abiadura palankaren doinu karraskaria hauteman ditut bidaian.

Zumarragako izateak –neurri batean izateak, ene buruaz ari naiz– Lizarraldetarren kamioiak neureak ere izatea ekarri du, neurri batean. Pelloren aitari *Pizkor* zeritzoten. Kamioilaria zen. Garraioak bizkor egiten zituelako seinale.

Abailak mudatu du mundua, bizkorra zena motela da egun.

▶ Iruñerritarra naiz(e)k

Ziztagarria eta kitzikagarria:
jendeok iratzartzen bagara,
iratzarriko da Euskal Herria
bidalketan

▶ Mikel Asurmendi(e)k

Ziztagarria eta kitzikagarria:
jendeok iratzartzen bagara,
iratzarriko da Euskal Herria
bidalketan

▶ Iñaki Suinaga(e)k Ziztagarria
eta kitzikagarria: jendeok
iratzartzen bagara, iratzarriko
da Euskal Herria bidalketan

Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena *

E-posta *

Webgunea

Iruzkin

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: <abbr title="">
<acronym title=""> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datetime="">
<i> <q cite=""> <s> <strike>

Bidali >

ARGIAko Blogarien Komunitatea - CC-BY-SA